

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Zaborren tasa, 2016 hirugarren hiruilekoko, ordaindu behar dutenen errolda**

2016ko hirugarren hiruilekoko zaborren tasaren errolda hamabost egun baliodunez jendaurrean egongo da, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo oharrak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Zaborren tasaren erroldaren aurka ez bada alegaziorik aurkezten 15 egun baliodunetan, epea hasiko da ordaintzeko.

2016ko urriaren 1etik azaroaren 30era bitarteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa (2016ko hirugarren hiruilekoko).

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Araudi Orokorrak, eta ehuneko bosteko erre-karguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; erre-kargu hori bateragarria da luzapen erre-karguarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2016ko irailaren 15a

*Alkatea*

*IÑAKI BERAZA ZUFIAUR*